

Elizondon kokatutako thrillerrak zenbait neraberren hilketak ikertzeraz eramango du Amaia Salazar polizia. Mitologiak istorioa gidatzen duen heinean, Baztango sineskeriak eta parajeak ezagutuko ditugu, oinarrian azkenaldian sekula

lako arrakasta izan duten nobela beltzen kontakizunak dituztela. Dolores Redondoren lan argitaratu berria atzerrian sekulako jakin-mina pizten ari da eta dagoeneko hamar herrialdetan publikatzea lortu du.

Baztango jeinuak esnatuko dira «Zaindari ikusezina» nobelan

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Nobela beltza urrezko garaia ari da bizitzen Stieg Larssonen "Millennium" trilogia mundu osoan best-seller egin zenetik. Orain atzerrian zeresana ematen ari den euskarazko nobela beltzaz goza dezakegu Dolores Redondok egindako lanari esker. Jatorrizko testua gaztelaniaz badago ere ("El guardián escondido", Destino), atzotik euskaraz irakur dezakegu. Josu Zabaletaren itzulpen lanari esker. Erein argitaletxeak Uzta Gorria sailean kaleratu du idazle berri honen "Zaindari ikusezina" lana.

Nobela thrillerra da, non Amaia Salazar inspektoreak gertatzen ari diren krimenak argitu beharko dituen. Argumentuak arrunta badirudi ere, gainerako osagaiak egiten dute berezi. Izan ere, istorioa Elizondo herrian dago kokatuta eta euskal sinesmenek berebiziko garrantzia dute. Hala, nerabeen heriotza

sorta bat Baztango ohiturekin eta mitologiarekin uztartzen ditu, eta hori da liburuari nortasuna ematen diona.

Idazleak polizien ikerketa lanaren egiazkotasuna erakutsi nahi zuen, filmetan eta telesailetan ikusten dugun iruditik aldentzeko. Esandakoaren arabera, ez du poliziarik ezagutzen eta Nafarroako Foru Poliziaren lana ahalik eta fidelen erakusteko berarekin harremanetan jarri zuen.

Nobelak duen beste berezitasun bat Amaia Salazar inspektorea bera da. Amarekin duen harreman kaskarrak bere izaeran eragina dauka, baina zoriontsua da finean. «Normalean nobelako inspektoreek arazoak dituzte, familia desegituratua eta oso bizitza iluna. Amaia atsegina da, ezkondua dago eta bere harremanarekin pozik dago».

Dolores Redondorentzat ustekabekoa —eta poztekoa— da nobela izaten ari den arrakasta.

2011ko ekainean amaitu zuen liburu, eta orduan ez zuen ez editorerik, ezta argitaletxerik ere. «Zortea izan nuen. Pertsona egokiek jarri nintzen harremanetan eta urrirako sei nazioarteko editorial nituen atzetik», aipatu zuen. Destino argitaletxeak (Stieg Larssonen lanak gaztelaraz eman zituenak) ezezagun baten nobela kaleratzeak jakin-mina piztu zuen. «Nobelaren eskubideak erosi dituzte, ez nire izena ospetsua delako, baizik eta gustatu egin zaielako, eta hori oso polita da», adierazi zuen. "Millennium" saga zinemara eraman zuen produktoreak ere, Peter Nadermannek, eskubideak erosi ditu. «Filma egiten dutenean nik ez dut esku hartzerik izango, baina ahalik eta fidelena izatea gustatuko litzaidake. Agertokia, behintzat, mantenduko dutela esan didate», kontatu zuen.

Zuzendaria euskalduna hartzen saiatuko direla ere baieztatu zuen.

TARTALO

«Zaindari ikusezina» trilogia baten lehen zatia da. Salazar inspektoreari kasu berria emango dion bigarren zatia, «Legado en los huesos» gaztelaniaz, amaituta dauka. Istorioan Tartalo aurkeztuko du.

SALAZAR

Protagonistari abizena Salazar inkisidorearen omenez jarri zion. Baztanen izan zen sorginkeriarik ba ote zegoen ikusteko eta sineskeria besterik ez zela esan zuen. Horren ondotik, ez zuten «sorginik» erreta hil.

tatu zuen, kontaktzen diren istorioak ondo ulertzea ezinbestekoa delako.

«Euskarazko itzulpenarekin ez dut beldurrik, itzultzaileak unibertso hau gertuko duela, baina atzerrikoekin izan du arazoren bat. Adibidez, badago une bat non sanferminetako entziarroa deskribatzen dudana, eta esaten dut plazan amaitzen dela. Bada itzultzaile alemanak deitu zidan galdetzeko ea zein plazaz ari nintzen», azaldu zuen. Beste kontzeptu batzuk ere ez dira atzerrian ulertzen. Esate baterako, «aita» eta «ama» hitzak mantentzeko eskatu du, Elizondoko batek inoiz ez duela beste hitzik erabiliko. Berdin gertatzen da Basajaun pertsonaiarekin. «Euskarazko bertsoa kenduta, beste hizkuntzek amaieran glosario bat daramate. Nahiago dut kontzeptu bakoitza azaltzea itzultzea baino, zentzua galduko lukeelako».

Euskal mitologiak atzerritarrrak nahastu beharrea, erakarrri egiten ditu. «Guk oso izaki indartsuak ditugu, eta banpiroei buruzko istorioak arruntak badira, ulergarria da gure jeinuenak ere erakargarriak izatea». Era berean Elizondoko bizitza mintzatzen da, Baztanek duen xarmaz, eta asko poztuko luke bere nobelaren hedapenak turismoa erakartzeak. «Leku zoragarria da eta oso gozo onak ditu, batez ere txokolata», aipatu zuen.

ARRAKASTAREN BELDUR DA REDONDO, BERDIN BIZITZEN JARRAITU NAHI DU

Dolores Redondok Zuzenbide ikasketak hasi zituen eta ondoren ostalaritzan hasi zen lanean. Sukaldaritza pasio badu ere, idaztea nahiago du eta zenbait lehiaketara aurkeztu ostean oihartzun handirik izan ez zuen nobela bat idatzi zuen. «Uste nuen honekin ere berdin gertatuko zela, ez nuen espero halakorik», adierazi zuen. Laster kontrolik gabe haziko den fenomeno bat izango da bere nobela eta horrek beldurtu egiten du. «Ez dut nire bizitza aldatzerik nahi, lasai bizitzen jarraitu nahi dut eta esperientzia honetako gauza onekin ez besterik gelditzen saiatuko naiz». N.B.

Dolores Redondo bere nobelaren euskarazko bertsoa eskuetan duela, euripean. Izaten ari den arrakasta ez zuela espero aitortu arren, Mari jeinuari «uzta ona» eskatu zioia onartu zuen txantxetan. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

